

GURE EÜSKARAREN HOBETZEKO

I – TRESNAK, ÜTÜRRIAK, ETSENPLÜAK

A – HIZTEGIAK

- 1 – Pierre Lhande :
(Ahozko mintzajean finkatzen da nausiki).
Dictionnaire basque-français
- 2 – Junes Casenaveren bi hiztegi / lexikoak :
 - Hiztegia, français-basque
 - Hiztegia II, euskara-français (hau lehena beno hobea, Casenaveren abürüz ere)
- 3 - Euskaltzaindia :

info(a)euskaltzaindia.net
www.euskaltzaindia.net

 - Hiztegi batua (egiaz lexikoa da) – Hitzak euskalki güzietako idazlanetarik hartzez.
 - Euskaltzaindiaren hiztegia (Hiztegi batuko hitzak argibideekin).
 - Zuberoako herri eta herritarren izendegia, 1999, *Euskera*, separata.

B – EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK :

www.euskaltzaindia.net / dok / arauak / pdf

C - GRAMATIKA :

Etchebarne Júje : Gramatika emendakinak Zuberoako euskaraz. Euskaltzaindia.
www.euskaltzaindia.net

D - ANTOLOGIAK :

- Zuberoako idazle zentzuak (XX. mendekoak), J-L. Davant, Elkarlanean :
www.elkarlanean.com
- Zuberoako literaturaz antologia laburra, J-L. Davant, Euskaltzaindia.
www.euskaltzaindia.net

E – BESTELAKO IDAZLANAK :

- 1 – Ahozko euskararen bilakaera Iparraldean, J-L. Davant, Mendebalde Euskal Kultur Alkartea, Bilbo, 2003. www.mendebalde.com
- 2 - Xiberotarraren ortografia – Xehetarzün zonbait.
Lan horren egiteko, 2012 ürrentzean eta 2003 hastean xiberotar euskaltzale andana bat bildü ginen lau aldiz Maule-Lextarreko Zerbütügünean, Battittu Coyos euskaltzain berriaren üngürüan. www.Herri alkargoako webguinea, euskara sailean.

Azken bi lan horien llabürpena eginen deizüet segidan.

II – AHO-MIHIZ ÜSÜENIK ENTZÜTEN DIREN HÜTSAK

(Mendebalde Euskal Kultura Alkartean eginiko mintzaldiaren llabürpena)

A organikoa, **A** artikulua : artikulua gabe ere, **a** batez ürrentzen dira bereziki *atorra, egia, egintza, eliza, ekintza, ekonomia, erregiña, familia, feria, habia, hazkuntza, hezkuntza, hizkuntza, gaüza, ideia, injüstizia, jüstizia,-keria, kontzientzia, lamiña, panpina, pertsona, presuna, printzes, probintzia ...*

Aintzin : aitzin (batuaz eta zubereraz bederen).

Alemant : aleman.

Algeria : Algeria (*haatik hor grafian sartzen gira*).

Altzaien : Altzain (artikülürük gabe).

Arrastiri, arrestiri, arristiri : aho-mihiz paso, haatik izkiribüz **arrastiri** da forma klasikoa.

Arratsean (izkiribüz)

Artino : rano / lano (raino) atzizkia ez dezagün bazter ; adibidez « bortalat artino », bortalano.

Atzaman : *trouver*, bena *attraper, saisir* zentzüan. Bestela **ediren** (aurkitu, kausitu, topatu).

Audela : bai, bena hor da gainera / **gaineala** ere.

Baizik : beti ez behar dü, aitzinetik edo gibeletik. « Hau baizik da » ez da xüen : « baizik » ez da « bakarrik » hitzaren baliokidea. Arren « Hau baizik ez da » edo « Ez da hau baizik », edo « Hau bera da ».

Bale(a) : « Baigorriko balea », bai. Bena bestela (h)aran, ibar = *vallon, vallée*.

Barnekalde : barne alde, barneko alde.

Baxe Nafarroa : Baxenabarre, Nafarroa Beherea. Asmakizün berri horren beharrik bazena ?

Bordagaraiek : Bordagaraik (artikülürük gabe).

Bere : jünta hontara bakoitxa bere autoan jin da (eta ez haren autoan) = chacun(e) dans sa propre voiture.

Büdet, bütjet : aitzinkontü (*budget prévisionnel*).

Date : geroa segür delarik.

Dateke : segür ez delarik, ez delarik segür ; **ke** horrek düda bat, zalantza bat adierazten dü.

Departamental : departamentuko.

Egüerdi eta erdi : **da**, eta ez « dira ».

Egür : süialkoa (*bois de chauffage, leña*). Zur : lantzekoa (*bois d'œuvre, madera*).

Ekoitzi, ekoizle, ekoizkin, ekoizpen : *produire, producteur, produit, production*.

Erdi finala : finalerdi.

Ere : üsü gaizki kokatürük. « Txominek greba ere egin dü » edo « greba egin dü ere » :

Txominek ere greba egin dü.

Erregione : Ez ! Eskualde.

Errúsiano : errúsiar.

Esbardin : ezbardin (**ez** bardin, *non égal*), edo *desbardin*.

Espektakulo : ikuskizün, ikusgarri.

Espero : hitz nahasgarria, batean *egürüki*, bestean *esperantxa üken*.

Estado : estatü.

Etxen (ene etxen)

Etxean (etxe hontan, hortan, harten)

Etxerik (ene etxerik)

Etxetik (etxe hontarik, hortarik, hartarik)

Gobernamentü : gobernü (hobe).

Instalatü : jarri, plantatü.

Itxasueko : Itsasuko (artikülürük gabe da).

Jente kontaketa : errolda (hobe).

Kantarisa : andere, emazte, neskatala, neskatoxe, neskatxona kantari(a).

Kart : laurden.

Küküla : oillarrarena, bena arto tini(a) (zübereraz hobeki).

Kültür : kültüra, beti **a** organikoarekin.

Lamin : lamiña.

Lehendakarisa : andere lehendakari(a), lehendakari andere(a).

Maki : taldea, eta güdari bakoitxa ere (hau ez da makisart-a).

Meresa : andere mera, andere aüzapez, aüzapez andere(a).

Mügagabea, l'indéfini, artikülü gabeka erranaldia ez da galdu behar. Kinperrez gorako etsenplü bat (irratiz entzünik hau ere) : « Xiberoko lau herriek « Xiberoko jauna » trajeria eman due » : *Les quatre communes de Soule ont joué la pastorale* « Xiberoko Jauna ». Erran behar zen : « Xiberoko lau herrik... » (*Quatre communes de Soule*).

Moteur : motür (motur, motore). Euskaraz EU sonü eta herots hori osoki arrotza dügü.

Naba : zola zabal eztia. Aspeko ibar hersia ez da iholaz ere Aspeko naba. Besterik da gure

Ibar Naba : ibar zabala.

Neskanegün : aho-mihiz lekü zonbaitetan, haatik izkiribüz **neskenegin** da forma klasikoa.

Oren bakoitxa **da**, oren bata **da** : eta ez « oren batak dira » !

Prentsa : kasetak, kazetak.

Prentsurreko : kasetaitzineko, kazetaitzineko.

SA atzizkia : Xiberoan eta Baxenabarren itsuski hedatzen ari da. Diskriminazalea da, euskaraz ez beita feminino ez maskulinorik. Mubimentü feministak bulkatürük, Euskaltzaindiak aholkatzen dü üsatü izen apürretarik harat ez zabaltzea.

Sarrikotarik, bena Sarrikotapetik (artikülüagatik).

Sobera handi : EZ ! Handiegi.

Traba : bai ; epantzü eta oztopo ere.

Tracteur : traktür (traktur, traktore).

Tronzoneuza : motosega (züb., bnaf), motozerra (lap, bat).

Ürrüstoen : Ürrüstoin (artikülürik gabe).

Ürrüpera : Atharratzen hasirik, Ühaitz ondoko ordoki lüzea, Sarrikotapetik harat Biarnon sartzen dena. Orokorkiago erribera, errepira.

Xerbütü : zerbütü.

Zentro : nonahi sartzen da, beharrik eta zehaztarzünik batere gabe. Üsü beste hitzez erran daitean güne bat aipü dü. Adibidez Urdiñarbeko « ardi zentroa » : marrotegia...

III - ORTOGRAFIA – XEHETARZÜN ZONBAIT

Orokorki, zübererak batuko ber ortografia dü (www.euskaltzaindia.net – Arauak). Haatik euskalkian berezitarzün zonbait badüfüg, eta horien argitzeko, xiberotar euskaltzale elibatek lan bat egin dügü Coyosen üngürüan, gorago aipatü bezala. Hona püntü zonbait.

Ba da : **bada** (lotürik). Haatik **ez da**, bestela *ezta* bilakatzen beita, *da* hori desgisatzez.

Beit da : **beita**.

H kontsonanteen ondotik ezabatzen da, salbüespenez kanpo. Batuan salbüespen bat bera mementoko : *alha*, (ala = edotik bereizteko). Zübereraz beste zonbait gehitu deitzogü, bi erranaldiren bereizteko : *aran* (ibar) / *arhan* (früta), *belar* (boronte) / *belhar* (lantare), *eri* (gaizki) / *erhi* (hatz), *zale* (euskaltzale) / *zalhe* (laster), *ero* (ertzo) / *eho* (hil), *orit* (memoria) / *ohit* (üsät). Bestalde *einhe* eta *phürü*, xiberotar hitz berezi horien ez desgisatzeko.

Lle ez da desagertü, bereziki zübereraz. Hona etsenplü zonbait : *llabiür*, *llapa*, *llapi*, *lloba*, *botilla*, *gillikatü*, *holli*...

N ere ez da desagertü, salbü ain, aün, ein, eün, oin, uin **basa diftongetan** : añ, eñ, oñ, uñ ahoskatzen dira, n izkiribatzez : *arrayn*, *artzain*, *astaina*, *gain*, *gaztaina*, *gotaina*, *hain*, *hein*, *hoin*, *tünürri*, *urdaina*, *zain*, *zoin*... **in** bikotearen aitzinetik beste bokal (*voyelle*) bat badüe.

Hegoaldean **in** agertzen den ber **jñ** ahoskatzen da, bena ez Iparraldean, bereziki Xiberoan. Artikülürik gabe **in** bikoteaz ürrentzen diren hitzak idatzi bezala ahoskatzen dira : *egin-a*, *hargin-a*, *hegazkin-a*, *min-a*, *samin-a*, *sorgin-a*, *urdin-a*, *urin-a*, *ürrin-a*, **zikin-a** (sale)...bai eta bere beitan a organikoa badüan *txardina* (bena hitz hau jesanik dügü). Zübereraz **n** ahosatzeko, **in** horren aitzinetik beste bokal (*voyelle*) bat behar da, ikusi berri dügün bezala.

Beste hitz elibatek aldiz **ñ** idatzirik due : *amañi* (*eta beste ñi güziak*), *andereño* (*eta beste ño güziak*), *diñat*, *diñagü*, *erregiña*, *espartiña*, *iñazi*, *lamiña*, *lapatiña*, *ñabo*, *ñaka*, *ñapür*, *ñiñika*, *porrokiña*, *zartagiña*, *zikiña* (saleté)...*iñaz* urrentzen direnak A organikodünak dira.